



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
2019/06/12

## **Bizkaiko Batzar Nagusiek bat egingo dabe Bilbao Bizkaia HARRO ospakizunagaz, gorputza adierazpen politiko moduan hartzen dauen arte erakusketea jasoz**

Beste urte batez, Bizkaiko Batzar Nagusiek LGBTIQ+ personen eskubideen aldeko jaiaren ospakizuna lagunduko dabe, Bilboko egoitzan “Politikoki (ez)zuzena. Gorputza adierazpen politiko gisa” erakusketa eskainiz. Erakusketak, hainbat jatorriko hamar artistaren lanak jasoten ditu: Sheila González Azcona, Medea Pola, Denissa Szidorak, Ritha Thende Mindonga, Aitane Goñi, Helena Goñi, Gui Martins, Alberto Taranco, Eduardo Gaviña eta Anca Petrei. Euren lanen bitartez –argazkiak, marrazkiak, oihalen ganean egindako lanak eta eskulturak– ahotsa emoten deusez gizarteko hainbat talderi, LGBTIQ+ kolektiboari, emakumeei, etorkinei edo aniztasun funtzionala daukien personei, besteak beste.

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria erakusketea komunikabideen aurrean aurkezteko ekitaldira etorri da gaur goizean, eta komisarioakaz eta ekitaldian egon gura izan daberen sortzaileetako askogaz berbetan jardun dau. Artistek euren artelanen jatorria eta esangura azaldu deusez lurraldeko Batzarretako ordezkari nagusiari.

“Gure eretziz, gorputza tresna parebakoa da gu geu benetan garan moduan erakusteko, modu zuzenean eta zintzoan komuniketako, eta Artearen Historiak argi eta garbi erakusten dau, gertakariaren norabidea aldatu eben ehundaka artistaren bitartez”, azpimarratu dabe Clara Fuster Pastor eta Elena Gómez Menéndez erakusketaren komisarioek. “Ikusten dauenari gauza asko barriro planteetera behartzen deusez erakusketea da, indarrez betea”, gehitu dabe.

Azpimarratu dabenez, erakusketaren helburuak “alde batetik arauetatik kanpo dagozan kolektiboek jasaten daberen zapalketaren barruan beste pentsamendu eta aktibismo bide batzuk ezagutuazotea eta ikusgai bilakatzea, eta, bestetik, parte hartzen daberen artistei euren buruaren eta inguruan daukien munduaren ikuspegia emon ahal izateko aukera eskaintzea dira, ahotsa altxetako eta euren artelanen bitartez sentimentuak, zapalketak eta sentsazioak adierazteko lekua emonez”.

Erakusketea Ortzadar LGBTk eta Bilbao Historikok antolatzen dabe, eta Bilbao Bizkaia HARRO 2019 ekimenaren jardueren barruan dago. LGBTIQ+, kolektiboaren eskubideen aldeko errebindikazino-jaiak da, eta Pride izenez be ezagutzen da. Erakusketea, gizarteko talde horreen adierazpenerako lekua da. Euren gorputza arma politiko moduan erabilia, emakumeen, etorkinen, aniztasun funtzionala daukien personen, transexualen, persona ez bitarren, Drag Queen-en edo Drag King-en ideak edo emozinoak adierazoten ditue. “Gorputzen estandarizazioa bilatzen dauen gizarteak euren ideak sarri askotan desitxuratu eta nahastu egiten dituala ikusten dabe”, Bilbao Bizkaia HARRO 2019 ekimenaren antolakuntzak adierazo dauenez.

Hori da “Politikoki (ez)zuzena. Gorputza adierazpen politiko gisa” erakusketa artistikoan jasoten diran artelanen helburua. Erakusketea gaur inaugurauko da, 18:30ean, eta bagilaren 28ra arte egongo da ikusleentzat zabalik, 08:00etatik 20:00etara, astelehenetik barikura. Sarrerea librea izango da.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
12/06/2019

## **Las Juntas Generales de Bizkaia se suman a la celebración de Bilbao Bizkaia HARRO acogiendo una exposición artística sobre el cuerpo como manifestación política**

Las Juntas Generales de Bizkaia apoyan un año más la celebración de la fiesta por los derechos de las personas LGBTIQ+ mostrando en su sede bilbaína la exposición “Políticamente in(correcto). El cuerpo como manifestación política”. Esta muestra recoge las obras de diez artistas de distinta procedencia: Sheila González Azcona, Medea Pola, Denissa Szidorak, Ritha Thende Mindonga, Aitane Goñi, Helena Goñi, Gui Martins, Alberto Taranco, Eduardo Gaviña y Anca Petrei. A través de sus obras - fotografías, dibujos, obras sobre textil y esculturas- dan voz y visibilidad a grupos sociales como el colectivo LGBTIQ+, mujeres, migrantes o personas con diversidad funcional.

La Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, ha acudido esta mañana a la presentación a los medios de comunicación de la exposición y ha departido con las comisarias y con buena parte de los y las creadoras que no han querido perderse el acto. Los y las artistas han explicado el origen y sentido de sus obras a la máxima representante de las Juntas Generales de Bizkaia.

“Creemos que el cuerpo es la herramienta perfecta para mostrarnos tal y como somos, para comunicarnos de manera directa y sincera y que la Historia del Arte lo demuestra a través de centenares de artistas que cambiaron el rumbo de los acontecimientos”, han subrayado Clara Fuster Pastor y Elena Gómez Menéndez, comisarias de esta exposición. “Es una exposición muy poderosa que obliga a quien la contempla a replantearse muchas cosas”, han añadido.

Según han destacado, los objetivos de la muestra son “dar a conocer y visibilizar otras vías de pensamiento y de activismo dentro de la opresión que sufren los colectivos no normativos y el segundo, que las artistas participantes pudieran dar su visión de sí mismas y de su mundo circundante, dándoles el espacio para que alcen la voz y puedan explicar a través de su obra sentimientos, opresiones y sensaciones”.

Ortzadar LGBT y Bilbao Historiko organizan esta exposición que se enmarca dentro del programa de actividades Bilbao Bizkaia HARRO 2019, la fiesta reivindicativa en pro de los derechos del colectivo LGBTIQ+ también conocida como Pride. La muestra es un lugar de expresión de estos grupos sociales que, utilizando su propio cuerpo como arma política, muestran experiencias ideas o emociones de mujeres, migrantes, personas con diversidad funcional, transexuales, personas no binarias, Drag Queens o Drag Kings “que muchas veces ven cómo sus ideas son tergiversadas por una sociedad que busca una estandarización de los cuerpos”, señalan desde la organización de Bilbao Bizkaia HARRO 2019.

Éste es el fin de las obras reunidas en la muestra artística “Políticamente (in)correcto”. La exposición se inaugura hoy a las 18:30 horas y estará abierta al público hasta el 28 de junio, en horario de 08:00 a 20:00 horas, de lunes a viernes y con entrada libre.